



Ez dok 13 gogoratu digu KORRIKA 13garrenak iraganari begira; eta etorkizunaren erronka ekarri digu GEROA aipatzean.

Iragana, oraina eta geroa, euskararen aldeko lana hiru arotan: herri honek, gure herriak, hizkuntza landu eta garatzeko duen nahiaren eta eskubidearen erakusgarri.

Euskararen aurrerabidean, euskara Euskal Herri osoan, guztiona eta bakoitzarena izan dadin ahalegina egin behar dugu denok; baina ez korri eginez bakarrik; baizik eta erabiliz eta erabilaraziz, erabiltzeko bideak erraztuz, trsnak prestatuz, behar diren legeak aldatuz, eskaintza haunditzeko laguntzak emanez, azken batean, denok, agintariak eta herritarrak, gure buruarekin kontsekuenteago izanik.

Bide luze horretan ezagutu beharra dago AEK-k egin duen lan ikaragarria; bera gabe eta bere lanaren emaitzak gabe, askoz ere egoera kaxkarragoan egongo baikinake denok geroaren erronkari aurre egoteko orduan.

EGUNKARIAk ezagutu du azken hiloabeteetan, AEK-k lehenago jasandako erasoak. Bi proiektu herritar eta nazional desegin nahi izan dituzte, baina herri honek iraunaraziko ditu.

Zorionak beraz, urte hauetan AEKn irakasten eta ikasten jardun duzuen guztioi.

Aurrera EGUNKARIA!!
Askatu EGUNKARIAko atxilotuak!!
Zorionak AEK!!
Zorionak Korrika!!

MARTXELO OTAMENDI